



PRENTSA-OHARRA

Auzokale programaren laugarren hitzordua, ostiralean, Carlos III.aren oinezkoendako pasealekuan, poparen eta rockaren kanta arrakastatsu eta klasikoen kontzertu batekin, Labanda Flowers taldearen eskutik

Emanaldia kalean bertan izango da, 20:00etan, Karlos III.aren etorbidearen eta Tafalla kalearen elkargunean

Labanda Flowers izango da *Auzokale* programa berriaren laugarren hitzorduko protagonista, bihar, ostiralarekin. Iruñeko Udalak udan zehar hiriko auzoetara proposamen artistikoak eramateko programa kulturala da *Auzokale*. Emanaldia 20:00etan hasiko da, eta sarrera librea da, atari zabalean egingo baita, Karlos III.aren oinezkoendako pasealekuaren eta Tafalla kalearen elkargunean.

Labanda Flowers taldeak denboran barna bidaiatuko du, eta ikusleak musikaren historian murgilduko ditu poparen eta rockaren kanta ahaztezinen bidez, garai bat markatu duten abestien bidez, 50eko hamarkadaren bukaeratik hasi eta XXI. mendera arte, kantu-sorta zabalarekin: *Johnny B. Goode*, *Grease* filmeko abestiak, Abba taldearenak zein Madrilgo "movida" garaikoak... Hori guztia estilo fresko, atsegin eta dibertigarri batekin, eszenaratze bakoitzerako propio egokitutako atrezzoaz lagunduta, hori baita taldearen marka. Taula gainean gozaten du taldeak, eta energia ikusleei helarazten die, abestu, dantzatu eta denbora-tarte ahaztezin bat igaro dezaten, haien historia markatu duten doinuez lagunduta.

Labanda Flowers 2009an sortu zen, eta estilo eta musika-prestakuntza osagarriko hainbat musikari biltzen ditu. Horrek edonorentzako ezagunak diren kantu-sorta zabala osatzea ahalbidetu die. Hona hemen taldekideak: Ana Galdiano (ahotsa), Mikel Lacunza (baxua eta ahotsa), Íñigo Goyache (gitarra eta ahotsa), Juanma Areta (gitarra), Carlos Oroz (bateria eta ahotsa) eta Sara Estébanez (teklatuak eta ahotsa).

Auzokale Iruñeko Udalak Civivox sarearen bidez sustatutako programa berri bat da, eta xede du abuztuan hiriko auzoetara proposamen artistikoak eramatea, hala nola kontzertuak, dantza, zirkua... Jarduerak joan den abuztuaren 4an hasi eta 31ra arte luzatuko dira, hainbat auzotan: II. Zabalgunea, Arrotxapea, Sanduzelai, Milagrosa, Iturrama, Alde Zaharra, Mendillorri eta Txantrea.

1. orrialdea, (e)tik 2



AUZOKALE. PROPOSAMENAK AUZOETAN

Abuztuak 18

- KONTZERTUA
- Labanda Flowers. *Abesti arrakastatsuak & klasikoak*
- Karlos III.aren etorbidean, Tafalla kaleko bidegurutzean. 20:00

Abuztuak 24

- KONTZERTUA ETA DANTZA
- The Time Rollers eta Pamplona Swing elkarte
- Milagrosako Civivoxeko patioa. 20:00

Abuztuak 25

- KONTZERTUA
- Hutsun txalaparta. *Txalaparta Hutsa*.
- Mendillorriko Aintzirako Parkea. 20:00

Abuztuak 28

- ZIRKUA
- La Raspa Circo. *Freak Show*
- Gortari Doktoarearen plaza (Sanduzelai). 19:30

Abuztuak 31

- KONTZERTUA
- Bitartean
- Salestarren patioa (Txantrea). 20:00

Iruñean, 2017ko abuztuaren 17an 2017